

Murgilketarako irakaslearen eginkizuna Komunikazio-elkarrekintzetan



Iñaki Biain Salaberria

Euskara Teknikaria.

*Nafarroako Gobernuko Hezkuntza
Departamentuko Euskara Zerbitzua*

Artikulu honetan murgilketa programa baten bidez bigarren hizkuntza bat ikasten ari den haurri laguntzeko, irakasleak gela barneko komunikazio-elkarrekintzetan erabili ahal dituen estrategiak aztertuko ditugu.

Artikulua hiru ataletan banatuta dago. Lehenengoan, gaiaren ikuspegi orokorra ematen da. Hurrengoetan, gaiaren bi alderdi nagusiak aztertzen dira: irakaslearen eginkizuna eredu eta zuzentzaile gisa, bigarreanean, eta solaskide eta dinamizatzaile gisa, hirugarreanean.

I.- IRAKASLEAREN EGINKIZUNAK KOMUNIKAZIO-ELKARREKINTZETAN:

Murgilketa programetako irakasleok gelako elkarrerikintza komunikatiboan bi eginkizun nagusi betetzen ditugu: solaskide/dinamizatzailearena eta eredu/zuzentzailearena

a) haurren SOLASKIDE eta DINAMIZATZAILE gisa horrela jokatuko dugu:

- haurrekin gaia konpartitu (gaia haurrengandik hurbil egon dadin zainduz)
- haurren komunikazio-ekimenak eta saiakerak jaso (aintzat hartu, aditu eta erantzun)
- haurrek ekoizten dutena ulertzen ahalegindu

Baina irakasle garen aldetik, ez gara solaskide arruntak IRAKASTEKO ASMOA dugunak baizik, ondorioz, halako eginkizunak ere burutuko ditugu:

- haurren osatu gabeko mezuak interpretatu eta osatzen lagundu
- ahozko elkar-trukaketetan sar daitezen estimulatu

DINAMIZADORE gisa honako hauek ere egingo ditugu:

- haurren arteko interakzioa eta komunikazioa eragin
- haien komunikazio-elkartrukaketak orientatu

Adibideak:

“Galdetu Andoniri ea ...?”

“Esan Mainerri azal diezazula”

“Telefonoz deitu ...-ri eta esaiozu”

“Leire, orain guztiok gaude, kontatu goizean kontatu didazuna”

b) HIZKUNTZA EREDU ETA ZUZENTZAILE gisa gure eskuhartzea ez da metalinguistika mailan kokatuko (hots, ez diegu haien ekoizpenez eta huts egiteez ohartaraziko), komunikazio ekintzan baizik.

Horretarako, EREDUA emateko:

1.- Geure hizkuntza EGOKITUKO dugu, baina desitxuratu edo pobretu gabe,

- arreta lortzeko
- ulertarazteko
- asimilazioa errazteko ulertua izateko erregistro egokia erabiliz; hau da, ulermena eta asimilazioa errazteko sintaxia behar-beharrezko mailan sinplifikatuz.

Beraz, gure hizkuntz egikera zaindu behar dugu:

- Adierazpenak hobetu, ulergarriagoak izan daitezen
- Esaldi luzeegiak edo subordinatu asko egin gabe
- Hitzak ondo ebaki eta, intentzioaren arabera, intonazioa markatu
- Beharrezkoa denean, enuntziatu bera naturaltasunez errepikatu, hobeto uler dezaten.
- Enuntziatu egonkorrak erabili; hizkuntz baliabide berriak sartzean, hizkuntz testuinguru ezagunetan kokatu (ulermena errazteko) eta, geroago, testuinguru ezberdinetan erabili (haien esanahi zehatzaz jabe daitezen).

Bestalde, ZUZENTZERAKOAN hizkuntz formari baino edukia-ri edo esanahiari begiratuko diogu, hots, zuzenketaren bidez mezuak ulergarriago bihurtzea eta adierazpide osatzea bilatuko dugu).

- okerre bat duten enuntziatuak, euskaraz eta galderak eginez errepikatu. Ad.
 - Txano bat enkontratu dut
 - Txano bat aurkitu al duzu ?

- enuntziatuak onetsi eta luzatu/zabaldtu.
 - ea zer jarri dizun amak gosaltzeko?
 - bokata bat
 - ah bai! urdaiazpiko eta gaztazko ogitartekoa! Gozoa dirudi, ez?

- Galderen bidez enuntziatuak osatzen eta zabaltzen (hasieran galdera itxiak izan arren, gero eta irekiagoak izango dira) lagundu. Irakasleak xehetasun gehiago ezagutu nahi balu bezala jokatuko du, edota haurrak aipatu duena une horretan gogoratuko ez bailuen.
 - Honek ez dit uzten
 - Nork ez dizu uzten, Andreak edo Anek?
 - Andreak ez dit uzten
 - eta zer da Andreak uzten ez dizuna ?

Jokabide hauek haurrari euskaraz hitz egiten -progresiboki- laguntzen diote, eta hortaz H2-an komunikatu ahal izateko gaitzen joango da.

Jarraian, irakasleak eredu eta zuzentzaile gisa bete ditzakeen eginkizunak zehaztasunez aztertuko ditugu.

II.- EREDUA EMATEKO ETA ZUZENTZEKO ESTRATEGIAK

Irakaskuntza/ikaskuntza prozesu guztietan, ikaslearengan eragin handia duten eginkizun ezberdinak garatzen ditu irakasleak. Hizkuntzaren irakaskuntzari dagokionez, hizkuntz eredu eta zuzentzaile izatearena hartu izan ohi da eginkizun garrantzitsuenetakotzat. Are garrantzitsuago murgilketa programetan, non irakaslea bera baita ikaslearen hizkuntzaren ezagupena aberasteko tenorean dagoen solaskiderik inportanteena eta, sarritan, ia bakarra.

Eredua eman eta zuzentzeko, irakasleak egikera ezberdinak burutu ditzake. Hona hemen behinenak:

II.A.- ZEHARKAKO EREDUAK:


(ulermena eta adierazpena laguntzeko)

Egikera hauetako batzuk zeharka eragiten dute, batik bat H2-arekin ematen diren lehendabiziko urratsetan, hots, ikasleak, oraindik, hizkuntza horretan hitz egiten ez duenean edota era oso mugatu batean egiten duenean. Egikera hauen helburua da, ikasleari, adierazle eta adieraziaren arteko erlazioa ezartzen laguntzea, helduak igorritako ahozko mezuen eta une horretan burutzen ari diren ekintzen arteko lotura ikusaraziz. Zeharkako baliabide hauen artean hurrengo bi hauek aipa ditzakegu: autosolasa eta mintzaira paraleloa.

Autosolasean, irakasleak, ozenki, egiten ari dena kontatzen du, bere asmoak, ideiak etab., ikasleei adierazten dizkie, inori zehatz-mehatz zuzendu gabe, hizkuntz funtzio edo forma batzuk plazaratzeko asmoz.

Mintzaira paraleloan, irakasleak ikasleren bat egiten ari dena edo, ustez, egingo duena kontatu edo deskribatzen du.

Beraz, antzeko bi estrategia dira, funtsean; bata, irakasleak egiten duena adieraztean datza; besteak, aldiz, ikaslearen iharduera hartzen du aipagarritzat.



Barrutia Ikastola. Gernika

Baliabide edo egikera hauek egokiak dira lehenbiziko mailetan edota ikasle batzuk gaitasun-maila eskasa azaltzen dutenean erabilitzeko. Hala eta guztiz ere, geroagoko mailetan ere erabil litezke, ikasleak oraindik ezagutzen ez dituen hizkuntz erabilerekin harremanetan jarri nahi dugunean, hain zuzen.

II.B- ZUZENENKO EGIKERAK

Ikasleen hizkuntz gaitasunen bat espreski garatzeko, baditugu bideratuagoak diren egikerak. Hauek, irakasleak ikasleari ematen dizkion laguntza-sistemak dira; batzuetan ulermena eta, besteetan, ahozko adierazpena errazteko. Laguntza hauen bitartez, ikasleek hobeki egokitzen diote beren ahozko ekoizpena komunikazio-egorari, edo ekoizpenen zuzentasun formala hobetzen dute.

ULERMENA ERRAZTEKO

Mezuen kontestualizazio argia da ikaslearen ulermena erraztu eta garatzeko biderik ohikoena. Horretarako mezuak irudi, ekintza, keinu edota doinu adierazgarriez lagundu ohi ditugu.

Ikasleen ezaugarrien arabera, laguntza-maila ezberdinak emanen dira. Adibidez: izendapenak edo deskribapenak egin, alternatibarik gabe edo bizpahiru alternatiba emanez; aginteak etab. keinu eta doinuaren laguntzaz edo laguntzarik gabe eman; mezuak testuinguru oso mugatu edo zabalagoetan kokatu,...

Lehendabiziko mailetan, zeinetan ikasleek oraindik H2-an ez dakiten hitzegiten, irakaslearen mintzairan egokitze batzuk egitea

komenigarria da oso: erritmo geldoago, intonazio eta mimika adierazkorragoak edota ahozko intentsitatea altuago erabiliz, aipatzen den testuinguru fisikoan -seinalatu, ilustrazioak erakutsi- gehiago oinarrituz; enuntziatuak sarriago errepikatu eta estabilizatuz...

ULERMENA eta ADIERAZPENA LAGUNTZEKO

Aldi berean, ulermena zein adierazpena lantzeko egikera egokiak dira gero eta irekiagoak diren galderen formulazioa, gero eta zailtasun gehiagoko erantzuna eskatzen duten galderak, alegia: hasieran erantzuntzat "bai" edo "ez" eskatzen dutenak, gero alternatiba bat -zein nahi duzu zuria ala gorria?- eskaintzen diotenak eta, azkenik, erantzunaren elaborazioa (laburra bada ere) eskatzen dutenak.

ADIERAZPENA ERRAZTEKO:

Adierazpena lantzeko, normalean, ikasleekin burututako solasaldi edo elkarrizketa-egoeretan sortuko diren egikera ezberdinak erabil ditzakegu.

Hauetako batzuek ikaslearen komunikazio-saiakerak erraztea edota adierazpen-zailtasunak gutxitzea dute helburutzat. Besteak, aldiz, mugatuak edo ez-zuzenak diren enuntziatuak zuzentzerako edo zabaltzerako bideraturik daude, eta muga edo ez-zuzentasun hauek enuntziatuaren ulermena oztopatu eta komunikazioa moztu dezaketenean neurrian erabiliko ditugu.



1.- ERANTZUTEN LAGUNTZEKO:

Ikasleak H2-a erabili bai, baina, ordurarte gutxi landutako funtzio batzuk betetzeko edo enuntziatio-egoeraren zenbait parametrori berbaldua egokitzeko, noizik behineko zailtasunak dituenean, Juez eta Monfort-ek errazte-sistemak deitutakoak erabiltzea beharrezkoa izan daiteke.

Jarraian, errazte-sistema hauek azaltzen ditugu, gero eta direktibitate txikiagoaren arabera mailakaturik. Direktibitate handiago dutenak, ikasleak H2-an hizkuntz gaitasun oso mugatua duenean bakarrik erabili behar dira, hortaz, betiere, aukera guztien artean direktibitate gutxiago duena erabiltzen ahaleginduko gara.

- Modelatzea: laguntza hau oso esplizitua da; egoeraren berritasuna dela eta, ikaslea trabaturik edo blokeaturik geratzen denean eman dakioken laguntza, hain zuzen. Honetan, irakasleak eredu posible bat ematen dio ikasleari eta errepikatzen laguntzen dio.

- Ea zein nahi duzun, gorria?, Benga, esan...

- go rri a (irakasleak ikaslearekin batera esaten duelarik)

- Indukzioa: Ikasleak ulermen-maila egokia eta erabili nahi duen hitza nola erraten den gogoratzen ez duenean erabil daitekeen laguntza da. Ikaslea egoera honetan ikusten dugunean, hitzaren lehendabiziko edota bi lehenengo silabak erran diezazkiokegu oroipena edo ebokazioa errazteko.

- Zer behar duzu ?

- eh ..., (idaztearen keinua egiten du)

- idaztekoa? ar...

- arkatza, bai!

- Imitazio mediatua edo zeharkako adibidea: Laguntza modu hau ikasleak komunikazio-egoera "berri" bati aurre egin diezaion nahi dugunean erabil dezakegu. Kasu honetan, irakaslea izaten ahal da eskatutako ekintza aurretik egiten duena, ikasleari iharduera burutzeko zeharkako eredu bat emanez. Horrela, adibidez, Haur Hezkuntzako txoko-iharduera batean, plastikazko iharduera jakin bat burutzeko beharrezkoa den materiala eskatzen ikas dezala lortu nahi baldin badugu, irakasleak ere iharduera horretan parte hartuko du, eta, materiala eskatuko dio material-arduradunari, bere ikasleei eredu emanaz.

Halako egoeretan, onuragarri da oso ama-hizkuntzatat euskara edo komunikazio-gaitasun haundiena duten ikasleen laguntza baliatzea, hortaz, lehendabiziko txandak emanez, beste ikaskideei imitatzeko ereduak eman diezazkiekete eta.

2.- SOLAS TXANDA MOTZETAN

Ikasleak era oso anbiguo edo eten batean hitz egiten duenean, berbaldiaren ulergarritasuna edo jarraikortasuna oztopatuz (forma egokia aurkitzen ez duelako edo), adierazitakoa argitu edo zabal dezan eska diezaioketu.

Argitze hori eskatzeko era ugari daude, hauen artean egokiena, galdera baten bidez esandakoaren baieztapena eskatzean letzake

Haurra: -Begira, hemen dago... eh ... animalia bat.

Irak: - animalia ...?

Kasu hauetan argitze eskaera oso ireki edo inespezifikoak: - Nola? ez dizut ulertu; edo oso itxiak edo zuzenegiak direnak: -Ze animalia da? baztertu beharko genituzke.

Irakasleak egindako galdera baten aurrean, ikaslea trabaturik geratzen bada, irakaslearen zentzugabeko erantzunek edo makurrak direnek tratatze hori apur dezakete. Honela, ikaslea, bere harridura azalduz, irakasleak emandako erantzuna baina zuzenagoa den beste bat ematen ahalegin daiteke. Kontu handia eduki beharko dugu irakasleak emandako erantzunak ikaskideen farrak sotaraz ez ditzan, zeren ikaslearen trabaketa areagotu bait liteke bizi izandako erredikulu sentsazioarekin.

Haurra: (hormirudian dagoen animalia txiki bat seinalatuz) eta hemen dago..., hau da ...

Irak.: Elefantea?

Haurra: ez elefantea ez! xagua.

Une jakin batzutan, zailtasun morfologiko edo sintaktikoaren aurrean, alde-zurretik ezagutzen dituzten adibideak (sarritan ager-tzen direlako edo), erabil ditzakegu, honela orokortzen saiatuz.

Irak: -Andrea eta biok jostailuen bila joanen gara.

Koldo: -Maixu! Ni ere joan...naiz?

Irak: -Begira, Koldo. Komunera joan nahi duzunean, nola esaten duzu: Komunera joan...

Koldo: -naiteke

Irak: -Oso ongi, beraz orain: Ni ere joan naiteke?, esan beharko zenuke, ezta ?

Ikaslearen adierazpena erabat okerra eta forma egokia ezagutu beharko balu (gelan sarri erabili baitugu), zuzenketa zuzena egin baino lehen ikaslea zalantzan jartzea komenigarria da, horrela pentsatu eta autozuzenketa egiteko aukera emanaz.

Irak.: -Ayudatu erraten al da? Ziur al zaude?

Hain ezagunak edota ohizkoak ez diren adierazpenetan irakasleak forma ez zuzenak edo ez egokiak -fonologia, semantika edo morfo-sintaksi mailan- erabiltzen baditu feedback zuzentzailearen teknikak erabil ditzakegu (teknika hauek, batez ere edukia osatzeko asmoz - esanahia zabaltzeko eta adierazpena luzatzeko, alegia- erabiliko ditugu; forma aldetik zeharkako zuzenketa egiten badugu ere). Feedback zuzentzailearen asmoa ez da zuzenketa esplizitua edota errepikapen bat eskatzea; osotuago, eboluzionatuago edo egokiagoa den eredu bat aurkeztea baizik. Tekniken artean hurrengo hauek bereiz ditzakegu:

- Hedapenak edo parafraasiak: Aurreko adierazpena osatuz edota berresanez, informazio gehiagorik erantsi gabe, egiten diren errepikapenak dira. Parafraasi hauek bi motatakoak izan daitezke:

-Lexikoak: hitz ez egokia, modu zuzenaz errepikatu (komunikazioa eten gabe).

Haurra: -Begira, etxe grande bat.

Irak.: -Ah bai, etxe handi bat edota:

-Ah bai, ze etxe handia.

-Morfosintaktikoak: esamolde okerra edo bukatu gabea, modu zuzenaz errepikatu (komunikazioa eten gabe).

Haurra: -Ama lanera...

Irak: -Bai, ama orain lanera doa.



Barrutia Ikastola. Gernika

- Luzapenak: edo, informazio gehiago erantsiz, enuntziatuaren errepikapenak:
 - Begira, hemen dago etxe handi bat.
 - Ah bai, hemen dago etxe handi eta polit bat, ondoan zuhaitza duena.
- Eranspenak edo ikasleen ekoizpenak irakaslearen berbaldian tar-tekatzea:
 - Irak: - ... orduan, mutila eskolatik alde egin eta...
 - Ikas: - Mutila, gaiztoa.
 - Irak: - Bai, mutil gaiztoak eskolatik aldegin zuen, eta ...

Feedback zuzentzailearen teknikak erabilpenak zuzenketa esplizitua premiagabeko bihurtzen du; azken hau erabiliz gero alderdi formalagoetara eta irakasleak komunikazio-gaitasun altuagoa lortu duen egoeretara mugatu beharko genuke. Dena den, hauetan ere, alderdi formalen zuzenketa benetako erabilerei buruz erreflexionatu -berauek hobetzeko asmoz- egitea komenigarriagoa da, testu-pedagogiaren "testualizazio" eta "berrikuspenen" proposamenen ildotik, hain zuzen.

3.- BERBALDI LUZEAGO ETA OSOTUAGOAK SORTZEN JOAN DAITEZEN.

Honaino jasotako estrategiak irakasle-ikaslearen arteko solas txanda motzetan erabiltzeko egokiak dira; hots, helduak zuzenean gobernatzen dituen elkarrizketetan. Irakleari berbaldiaren kudeaketa



autonomoago edota testu luzeagoen erabilpena eskatzen dizkieten elkarrizketa-egoeretan, berriz, Tough-ek(1989) deitutako elkarrizketa-estrategiak erabil ditzakegu. Estrategia hauek gogoeta egitea eta era efikazagoan komunikatzea eskatzen diote ikasleari. Horretarako, haren pentsamendua zabaldu eta ideiak argi eta garbi adierazteko erak bilatzera eraman nahi dituzten galderak zein iruzkinak egin dizkiogu.

Tough-ek horrela sailkatzen ditu elkarrizketa-estrategi hauek:

- Orientabide-estrategiak: Gai bati buruz, era jakin batean, ikaslea gogoeta egitera gonbidatzen dutenak dira. Gaiaren alderdi jakin batean atentzioa finkatzen laguntzen diote, edota, hizkuntz funtzio jakin bat erabiliz erantzuna ematera gonbidatzen dute. Beraz, eskatutako erantzunaren izaera erakusten badiote ere, ez dira galdera itxiak, bere erantzun propioa ematen ahalbidetzen baitiote ikasleari. Galdera irekiak dira erantzuteko aukera ugari eskeintzen dutelako eta berbaldiarekin jarraitzea gonbidatzen dutelakotz.

Hizkuntz erabilera edota funtzio ezberdinak sortzea nahi dugunean erabil daitezke. Modu honetan, hauek bezalako galderak edota iruzkinak: "Zer gertatzen ari da hemen?", "Hitzegin ezazu ...-ri buruz", funtzioa informatzea (narrazioa, deskripzioa, e.a) duten erantzunak eskatzen dituzte. Besteek, berriz, arrazoiak ematea edo aurrikustea eskatuko dute: "Zer dela eta gertatu da hau?", "nola gertatu da hau?", "zergatik egingo ote zuen?".

- Errazte-estrategiak: norabide jakin batean sakontzen lagundu nahi diote ikasleari. Hiru motatakoak izan daitezke:

a.- Osatzaileak: Emandako erantzuna osotzen eta gehiago lantzen laguntzen diote; horretarako xehetasun gehiago, azalpenak, justifikazioak eskatuko dizkiogu.

Adibideak:

- Zaila suertatu zaizu? zein zen arazoa?
- Arrazoi gehiago bururatzen zaizkizu?

b.- Fokatzale edo ardaztatzaile: Estrategia hauek ikaslearen atentzioa zentratu nahi dute kontuan hartu ez duen gairen alderdi jakinen batean.

Adibideak:

- eta honi buruz (alderdi jakin batetaz ohartaraziz) zer esaten didazu?
- basoan zeintzu ziren ugarienak pagoak edo aritzak?

c.- Egiaztatzeak: Estrategia hauek, ikasleari, esan duena ziurtatzea, egiaztatzea eskatzen diote. Beti ere, kontuan hartuz helburua adierazitakoa, batik bat edukiari dagokionez, argitzea izango dela.

Adibideak:

- Zuhaitz guztiak pagoak al ziren?
- Hogeiren bat zuhaitz besterik ez ziren?

- Informazio-estrategiak: Ikasleari informazioa ematean dautza. Xede bikoitza dute: alde batetik parte hartzeko erabilgarriak izan daitezkeen ekintzak edota ezagupenak proposatzea eta, bestetik, informazioa antolatzeke eta emateko erari buruz ereduren bat eskaintzea.

- Laguntza-estrategiak: Ikaslearen ahaleginak errefortzatzen dituzten iruzkinak edo estrategiak dira. Horretarako, haren ideiak azaltzen jarraitzea animatzen duen solaskide arretatsu baten presentzia bermatzen zaio ikasleari.

- Ah bai, konturatzen naiz!.

-Bukatzeko estrategiak: Elkarrizketa bukatzeko edo gaiak aldatzeko seinale argiak eskaintzen dituzte: ikasleak azaldutakoa balioztatatu, beste azpigai bati ekitea eskatu, ...

Azkenik, komunikazio-gaitasun dexente duen ikasleari ahozko testu monokudeatuen ekoizpenean (iraupen eta autonomia haundia goa suposatzen dutenak), lagundu nahi baldin badiogu, testu-pedagogiak planifikatzeko, testuaratzeko eta berrikusteko estrategiak balia ditzakegu.

III.- KOMUNIKAZIO EGOERAK ANTOLATZEKO ETA DINAMIZATZEKO BIDEAK

Eredua ematea eta zuzentzea garrantzia badu, are garrantzitsuago izango da komunikazio egoera egokiak antolatzea eta dinamizatzea. Haurra, hortaz, komunikazio egoera hauetan parte hartuz, bere irakasle eta ikaskideekin elkarreraginez, joango baita piskanaka-piskanaka bigarren hizkuntza bereganatzen.

Hizkuntza bat ikastea ez baita imitazio eta zuzenketa hutsaren bidez ematen den prozesua; baizik eta zentzua eman eta esanahia eraikitzeke prozesu bat. Eta esanahia errekonozitu eta eraiki ahal izateko haurrak komunikazio egoera esanguratsuetan parte hartu behar du, hori da hizkuntza berri hori erabili egin behar du.

Erabilera-egoera hauek antolatzea eta dinamizatzea da irakaslearen eginkizun nagusia.

Haiantzako berri den hizkuntzan garatzen ari den komunikazio egoera horretan parte hartu ahal izateko haurrek beharko dute

- . egoera ezagugarri eta aurrikusgarri izan dadila
- . beste batzuren eskuhartzea, harien partaidetza gidatzeko.

hots, besteekin “esparru menta” bat konpartitu behar dute (eta bestekin konpartitua den aldetik esparru hori soziala izango da.).

Bestearen partaidetza lagungarri egingo zaio haurrari baldin eta irakasleok egoeraren antolatzaile eta dinamizatzaile trebeak bagara; hori da konpartitutako esparru hori eraikitzen baldin badakigu.

III.A. IRAKASLEA KOMUNIKAZIO-EGOERAK ANTOLATZEN

Antolatzaile bezala, irakasleoi dagokiguna da egoera ezagugarriak -bere osotasunean- eta arriskugarriak -bere bilakaeran- proposatzea haurrei. Haurrek parte hartu ahal izateko, egoeraren nondik norakoa ulertu eta gertatuko diren gauzak nolabait aurreikusteko gauza izan behar dute, hots, egoera bera ulertu behar dute.

Egoera bere osotasunean ulertzen badute parte hartu ahal izango dute, eta parte hartuz eraiki ahal izango dituzte hizkuntz osagaien esanahiaren inguruko hipotesiak. Hipotesi hauek egoera berrietan parte hartuz, egiaztatzen eta egokitzen - fintzen - joango dira, haien esanahi zehatzetara hurbilduz. (Hasiera batean haurrek egoeraren ulermen globala baldin badute, bertan ematen diren mezuak ere ulertuko dituzte -edo mezu jakin horiek egoera jakin horretan zertarako balio duten, hots, duten esanahi konkretua ulertuko dute-. Ulermen global horretan oinarrituz, hizkuntz osagaiak identifikatzen eta haien esanahiaren inguruan hipotesiak egiten joan daitezke. Nola eta hizkuntz osagai horiek egoera berrietan agertuko diren, hipotesi horiek egokitzen eta fintzen joango dira, osagai linguistikoko horien esanahia egoera berrietan ezagutuz eta plurifuntzionalera piskanaka hurbilduz).

Eta, zertaz balia gaitzake irakasleok egoera ezagugarri eta arrikugarri egiteko?

Egoera hainbat osagaien inguruan (hitzekoak ez direnak, alegia) haurrek duten ezagutzan oinarri gaitzake. Osagai hauek espazio-antolaketa, denbora-antolaketa eta ekintzen barne-antolaketarekin estuki loturik daude, hots, egoeraren espazio, denbora eta ihardunbidea konpartitzea da elkar ulertzeko euskarria.

Horretarako, haurrek konpartitzen omen dituzten esperientzietan oinarritu behar gara. Eta konparti ditzazketen esperientziak zeintzuk diren erabakitzeke hiru iturri ditugu irakasleok:

. Haurrekin amankomunean dugun “erreferentziako marku sozial”a (Coll etab,1992): gure ingurune sozio-kulturalako haurrengan ohikoak diren esperientzia eta ezagutzak.

. Amankomuneko “erreferentzi-marku espezifiko”a (Coll, etab,1992); hots,elkarrekin izandako esperientziak.

Eta

. Amankomuneko “erreferentzi-marku espezifiko” berriak sortaraztea, ihardunbide konpartiturako egoera berriei bidea irekitzeko.

Laburbilduz, irakasleon eginkizun nagusia, eredia ematean edo zuzentzean baino, konpartitutako testuinguru mentala eraikitzean datza. Konpartitutako testuinguru horrek elkarren arteko ekintzarako



Barrutia Ikastola. Gernika

oinarri izango da eta hitzeko komunikazioari euskarri emango dio. Halako markuan, esanahiaren negoziatorako parada izango dugu (haurrek hitzeko hizkuntzari zentzua emango diote eta esanahi berriak eraikiko dituzte), eta horri esker bigarren hizkuntzaz jabetuko dira.

Gelako ekintzetarako posibilitate zenbait:

1) Haur gazteenekin , murgiltze programan hasi berriekin

a) Gelako ohitura eta azturekin loturiko hainbat eginkizun komunikazio egoera bihurtu eta , partaidetza ahalbideratzeko, sistematizatu. Hau da, eginkizun-horietako oinarritzko formato egonkor bat sortu, non ihardunbidea erdi-eritualizaturik edo pautaturik dagoen, haurren partaidetzarako euskarri izan dadin (etorri direnak eta ez direnak ikusteko, lanerako materialak banatzeko, gertakizun bat besteekin kontatzeko, nolako egiraldia egiten duen ikusteko,...)

b) Gelako ohiko lanekin era berean jokatu: hots, hainbat txoko, tailer edota aktibitate-sistemari egituraketa ezagugarri eta aurrikusgarri eman.

c) Gelako lan-proiektuetarako ihardunbide jakin bat definitu: erabakiak hartzeko, egiteko antolatzeko eta lan egiteko une egonkorrrak erabiliz; hau da, egituraketa-eredu bati jarraitu (zer egin eta zertarako definitzeko, iraupena erabakitzeke, egitekoak planifikatu eta banatzeko, lantxoak burutzeko, emaitzak baloratzeko uneak, adibidez)



egoera anitzak sortzeko biderik naturalena eta errazena da dinamika komunikatibo eta kooperatiboaren arabera antolatzea eguneroko iharduna; bai bizikidetzari eta baita lana eta ikasketari dagokionez ere.

Ikasketak eta lanak modu kooperatibo-komunikatiboan bideratzeko, tailerrek, aktibitate-sistemek eta proiektu edo tareetan oinarrituriko Sekuentzia Didaktikoez eskaintzen digute marku oso egokia; bai edukien inguruko lana burutzerakoan (elkarlan saioetan informazioak bilatu, landu, antolatu, elkarri aurkeztu eta hartzaile batentzat prestatzeko), baita proiektua antolatu, garatu eta baloratzekoan ere (zertarako, norentzat, zer, nork, nola, noizko etabar erabakitzeko).

Sekuentzia Didaktiko hauen prozedura ezezik, helburua ere komunikatibo baldin bada (bigarren mailako neska-mutilen liburutegirako eta beraiei kontatzeko ipuinak prestatzea, adibidez), komunikazio-egoerak plazaratzeko bi parada berri ditugu:

- . Xede-eginkizuna bera burutzeko saioak eta
- . enuntziatio-egoera aztertzeko eta testua enuntziatio-egoerarik egokitzeko lan saioak.

Partaidetzari dagokionez, komunikazio-egoera egonkorrak erabiltzeak hauxe ahalbideratuko du:

- . komunikazio- egoeraren ardura eta gestioa piskanaka ikasleengan uztea (kontrolaren-lagapen prozesua) eta
- . haurren arteko komunikazio-elkarrekintzak irekiago eta ohikoagoak izatea ikasleek ez baitute irakaslearen gidaritzaren menpe egon beharrik, egoera ezagugarri eta aurrikusgarri baten aurrean baldin badaude (zer egin, nola jokatu behar duten baitakite)

III.B.- IRAKASLEA KOMUNIKAZIO-EGOERAK DINAMITZATZEN:

Irakasleok, sortutako komunikazio-egoeretan, haurren partaide-tza sustatu eta lagundu behar dugu.

Horretarako honako bide hauek ditugu:

= Haurrengan komunikazio beharra sortu. Egoera beraren definizioak sortaraziko du komunikatzeko benetako beharra, proposaturiko egoera funtzionala baldin bada (“zertarakoa” eta “norantzakoa” argi eta kontsetualizatu bat baldin bada, alegia) eta esanguratsu edo signifikatibo suertatzen baldin bazaie (haien esperientzia-munduarekin uztartzen edota haurren proposamenetan oinarritzen baldin bada).

=Arreta eta ekintzaren garapena konpartitzen ari garela zaindu. Horretarako, haurren ekimenen gainean konpartitutako egoerak erai-ki edota geuk proposatzen diegun egoerak ezagugarri eta esanguratsu suertatzen zaizkiela ziurtatu behar dugu.

= Haurren komunikazio-ekimenak arretaz jaso, ulertzen ahalegindu eta jarraipena. Haurren ekimenak ez zapuztearren, garrantzi berezia dute zuzenketak egiteko erabiltzen ditugun estrategiak; horrexegatik proposatu ditugu, bigarren atalean, komunikazioa haus-ten ez dituzten estrategiak (feed-back zuzentzailearen teknikak deitu ditugunak).

= Parte hartzeko ihardunbide pautatuak izan: egoera egonkorre-tan parte hartzeko prozedura egitaratuak erabili (Adibidez: “kontaki-zunen ordua”n nori-zer-non-noiz pautari jarraitu) haurren ekinbidea gidatzeko. Pauta are argiago edo itxiago izango da laguntza handia-go behar dutenekin; laguntza gutxiago behar duten neurrian, pauta laxatzen joan daiteke.

d) Haurrek ipuinekin etab.ekin (omen) duten espoerientzia erabili, ipuinak konpartitutako ekintzetarako esparru edo marku bihurtuz; hots, hainbat ipuin antzeztu-bizitu-jolastu edota elkarrekin iharduteko marku bezala erabili., Artigalek proposatutako bidetik.

2) Neska-mutil kozkorragoekin:

Esparru konpartitu hori eraikitzeko hitzek ere lagunduko digute. Komunikatzeko gaitasuna areagotu ahala, ez-hitzezko eta hitzezko osagaiak izango dira egoera konpartituaren euskarri; aurrerago, aldiz, hitzeko osagaietan oinarrituko da batik bat (garapenean aurreratu ahala hitza bera izango da esparru konpartituak eraikitzeko tresna nagusia: ez-hitzezko testuinguru mezuen esanahia eraikitzeko ezinbesteko euskarri gisa erabiltzetik, batez ere kontestuaz - hots, hitzezko kontestuaz- baliatzen igaroz). Batjin-ek esan bezala “hitza bera da solaskideen arteko esparru amankomuna”.

Gauzak horrela, testuen inguruan garatzen joango diren-era asko-tako ezagutzak izango dira(testua bera kontestuan kokatu ahal izatea, testuen egituraren ezagutza, ohiko testu-antolatzaile eta lokailuen ezagutza,...) elkar ulertu ahal izateko euskarri garrantzitsuenetakoa.

Dena den, egoera egonkorren erabilpenak (nahiz eta askoz ere irekiago izan) lagunduko digu komunikazio eta neska-mutilen partai-detza lortzen.

Komunikazioari dagokionenz, gogoratu behar dugu komunika-zio-egoera dibertsifikatuetan parte hartzea komunikazio-gaitasuna garatzeko ezinbesteko baldintza dela. Eta gela barnean komunikazio-